A EREDUA / MODELO A

A TALDEA

Ezagutza teorikoen proba

A) atala

GRUPO A

Prueba de conocimientos teóricos

Apartado A)

Erref. - Ref.: A – 1A

KONTUZ: Erantzunen Orriko 240. galderan, adierazi zein ariketa eredu egokitu zaizun: "A" aukera.

ATENCIÓN: Indique en la pregunta nº 240 de la Hoja de Respuestas el modelo de cuestionario que le ha correspondido: opción "A".

ERANTZUNEN ORRIA / HOJA DE RESPUESTAS

	A	B	C	D
240	■			

Galdera bakoitzeko launa erantzun daude, aurretik letra hauek dituztenak: "A", "B", "C" eta "D". Erantzun zuzena, ordea, bat bakarra da. Erantzunen Orrian ontzat eman duzun erantzunari dagokion letra markatu behar duzu, bertan erakusten den bezala.

En cada pregunta hay 4 posibles respuestas, precedidas de las letras "A", "B", "C" y "D", de las que sólo una es correcta. Debe marcar en la Hoja de Respuestas la letra que corresponda a la solución, tal como se señala en la misma.

Aurrena, galdera orrian erantzun, eta gero Erantzunen Orrian kopiatu ezazu egin duzun aukera hori. Kontuz ibili kopiatzerakoan, eta gaizki markatu baduzu, eskatu laguntza zaintzaile bati.

Conteste primero en el cuadernillo y copie después la opción seleccionada en la Hoja de Respuestas. Tenga cuidado al copiar y si se equivoca, pida ayuda a un/a cuidador/a.

EZ AHAZTU: Erantzunen Orrian markatu aukeratu duzun erantzuna. Erantzun bat bakarra markatu.

RECUERDE: marque la solución en la Hoja de Respuestas y marque sólo una respuesta.

Azterketaren bukaeran erreserbako 5 galdera daude eta aurreko galderaren bat baliogabetuz gero bakarrik ebaluatuko dira.

El examen tiene al final del ejercicio 5 preguntas de reserva que sólo se evaluarán en el supuesto de anularse alguna pregunta.

Azterketako galderak: 1etik 50era
Erreserbako galderak: 51tik 55era

Preguntas de examen: de la 1 a la 50
Preguntas de reserva: de la 51 a la 55

KONTUZ: Ezagutza teorikoen probaren A) atalean erantzun okerrek penalizazioa dute (1/4)

ATENCIÓN: En la prueba de conocimientos teóricos apartado A) las respuestas erróneas penalizan (1/4)

OSO GARRANTZITSUA

LAUKITXOAK ONDO MARKATU

ONDO BIEN ■ GAIZKI MAL ⊟ GAIZKI MAL ⊟

MUY IMPORTANTE

MARQUE CORRECTAMENTE LAS CASILLAS

GAIZKI MAL ⊟ GAIZKI MAL ⊠ GAIZKI MAL ⊡

EZ PASA ORRIA, PASATZEKO ESATEN DEN ARTE!!!

¡¡¡NO VUELVA LA HOJA HASTA QUE SE LE INDIQUE!!!

Irun, 2020-01-15

Irún, 15-01-2020

1. **Gipuzkoako Foru Aldundiaren eremuan, nori dagokio berdintasunari buruzko programazioaren edo plangintzaren diseinua zuzentzea?**

   A - Emakunderi.

   B - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari.

   C - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentu unitate bakoitzari.

   D - Batzar Nagusiei.

2. **Konstituzioaren arabera, nortzuk aukeratu behar dituzte udalerriko biztanleek, sufragio unibertsal, berdin, libre, zuzeneko eta isilpekoz, legeak ezarritako moduan?**

   A - Alkateak eta zinegotziak.

   B - Alkateak soilik.

   C - Zinegotziak soilik.

   D - Zinegotziak soilik, kontzeju irekiaren araubideko kasuetan bakarrik.

3. **5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 14. artikuluan araututakoaren arabera, zein da enplegatu publikoen norbanako eskubide bat taldean ballatzen dena?**

   A - Karrerako funtzionario izaerari dagokion mugiezintasunerako eskubidea.

   B - Egoera profesionalari dagozkion eginkizun edo zereginak benetan betetzeko eskubidea, betiere, bere lanbide-karreran izandako aurrerapen profesionalaren arabera.

   C - Etengabeko prestakuntza izateko eta jakintza nahiz gaitasun profesionala etenik gabe eguneratzen jarraitzeko eskubidea, ahal dela, lan-ordutegiaren barruan.

   D - Negoziazio kolektiboan jarduteko eskubidea eta lan-baldintzak zehazterakoan parte hartzekoa.

4. **Noiz izango du administrazio-isiltasunak baleste balioa?**

   A - Egintzak ofizioz berrikusteko prozeduretan.

   B - Egintza bat gora jotzeko errekurtsoaren bidez aurkaratzeko prozeduran, gora jotzeko errekurtso hori eskaera bat administrazio-isiltasunez ezestearen aurka aurkeztu denean.

   C - Egintza bat gora jotzeko errekurtsoaren bidez aurkaratzeko prozeduretan.

   D - Espainiako Konstituzioaren 29. artikuluan oinarritutako eskaera eskubidea gauzatzeari buruzko prozeduretan.

1. **¿A quién corresponde dirigir el diseño de la programación o planificación en materia de igualdad en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa?**

   A - A Emakunde.

   B - Al Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

   C - A cada una de las unidades departamentales para la igualdad de mujeres y hombres.

   D - A las Juntas Generales.

2. **La Constitución exige la elección por los vecinos del municipio mediante sufragio universal, igual, libre, directo y secreto, en la forma establecida por la ley de:**

   A - Los alcaldes y los concejales.

   B - Solo de los alcaldes.

   C - Solo de los concejales.

   D - Solo de los concejales exclusivamente en los casos de régimen de concejo abierto.

3. **Conforme lo regulado en el art. 14 del Real Decreto-Legislativo 5/2015, es un derecho individual de los empleados públicos que se ejerce de forma colectiva:**

   A - El derecho a la inamovilidad en la condición de funcionario de carrera.

   B - El derecho al desempeño efectivo de las funciones o tareas propias de su condición profesional y de acuerdo con la progresión alcanzada en su carrera profesional.

   C - El derecho a la formación continua y a la actualización permanente de sus conocimientos y capacidades profesionales, preferentemente en horario laboral.

   D - El derecho a la negociación colectiva y a la participación en la determinación de las condiciones de trabajo.

4. **El silencio administrativo tendrá efecto estimatorio:**

   A - En los procedimientos de revisión de oficio de actos.

   B - En el procedimiento de impugnación de un acto mediante recurso de alzada, cuando dicho recurso de alzada se haya interpuesto contra la desestimación por silencio administrativo de una solicitud.

   C - En los procedimientos de impugnación de un actos mediante recurso de alzada.

   D - En los procedimientos relativos al ejercicio del derecho de petición con base en el art. 29 de la Constitución Española.

5. **Nork dauka Gipuzkoako Lurralde Historikoaren lege ordezkaritza?**

A - Gipuzkoako Batzar Nagusiek.
B - Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Foru Aldundiak, biak batera.
C - Gipuzkoako diputatu nagusiak.
D - Gipuzkoako Foru Aldundiak.

6. **Espainiako 1978ko Konstituzioaren arabera, Legeak:**

A - Edozein arlo arau dezake.
B - Konstituzioak berak Legerako gordetako arloak bakarrik arau ditzake.
C - Erregelamendu erreserbarik ez duten arloak bakarrik arau ditzake.
D - Ezin ditu arautu izaera tekniko markatua duten arloak, horiek erregelamendu bidez arautuko baitira.

7. **Nork ematen ditu foru dekretu arauak?**

A - Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak.
B - Gipuzkoako Batzar Nagusiek.
C - Gipuzkoako Batzar Nagusietako Batzorde Iraunkorrak.
D - Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuek.

8. **Europar Batasunaren tratatuek kontrakorik xedatu ezean, nola erabakitzen du Europar Parlamentuak?**

A - Emandako botoen gehiengoz.
B - Emandako botoen gehiengo kualifikatuz.
C - Aho batez, baina abstentzioak ez dira ezezko boto gisa kontatzen.
D - Emandako botoen gehiengo osoz.

9. **Nori dagokio Euskal Herriko Autonomia Estatutua eraldatzeko ekimena?**

A - Eusko Jaurlaritzari soilik.
B - Eusko Legebiltzarrari soilik.
C - Diputatuen Kongresuari soilik.
D - Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta Gorte Nagusiei soilik.

10. **1978ko Konstituzioan, sindikatuen sorrera askea da:**

A - Inolako baldintzapenik gabe.
B - Baina, baimen administratiboa behar da.
C - Baina, horien barne egitura eta funtzionamendua demokratikoak izan behar dira.
D - Sindikatu profesionalen kasuan izan ezik.

5. **La representación legal del Territorio Histórico de Gipuzkoa:**

A - La ostentan las Juntas Generales de Gipuzkoa.
B - La ostentan, conjuntamente, las Juntas Generales y la Diputación Foral de Gipuzkoa.
C - La ostenta el Diputado o Diputada General de Gipuzkoa.
D - La ostenta la Diputación Foral de Gipuzkoa.

6. **De acuerdo con la Constitución Española de 1978, la Ley:**

A - Puede regular cualquier materia.
B - Puede regular sólo las materias que hayan sido reservadas por la propia Constitución a la Ley.
C - Puede regular sólo aquellas materias sobre las que no exista una reserva reglamentaria.
D - No puede regular materias con un marcado carácter técnico, estas materias tendrán que ser reguladas por un reglamento.

7. **Los Decretos Forales-Norma:**

A - Los dicta el Consejo de Gobierno Foral de Gipuzkoa.
B - Los dictan las Juntas Generales de Gipuzkoa.
C - Los dicta la Comisión Permanente de las Juntas Generales de Gipuzkoa.
D - Los dictan los Diputados y Diputadas Forales de Gipuzkoa.

8. **Salvo disposición en contrario de los Tratados, el Parlamento europeo decidirá con carácter general:**

A - Por mayoría de votos emitidos.
B - Por mayoría cualificada de los votos emitidos.
C - Por unanimidad, no computándose las abstenciones como votos negativos.
D - Por mayoría absoluta de los votos emitidos.

9. **La iniciativa para reformar el Estatuto de Autonomía para el País Vasco:**

A - Solo la tiene el Gobierno Vasco.
B - Solo la tiene el Parlamento Vasco.
C - Solo la tiene el Congreso de los Diputados.
D - Solo la tienen el Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco y las Cortes Generales.

10. **En la Constitución de 1978, la creación de sindicatos es libre:**

A - Sin condicionamiento alguno.
B - Pero necesita autorización administrativa.
C - Pero su estructura interna y su funcionamiento deberán ser democráticos.
D - Salvo en el caso de los sindicatos profesionales.

11. 1978ko Konstituzioan:

A - Alderdi politikoak aniztasun politikoaren adierazle gisa aipatzen dira.

B - Alderdi politikoak pertsona juridiko-publiko gisa aipatzen dira.

C - Alderdi politikoak Estatuaren zati gisa aipatzen dira.

D - Alderdi politikoak ez dira aipatzen.

12. Euskara:

A - Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako administrazio publikoen hizkuntza ofizial eta propio bakarra da.

B - Gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako administrazio publikoen hizkuntza ofiziala da.

C - Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako lanpostuak bete eta horietan jarduteko ezinbesteko baldintza da.

D - Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako administrazio publikoek herritarrei zuzentzerakoan lehenik erabili beharreko hizkuntza propioa da.

13. 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren arabera, zein dira interesdunak administrazio prozeduran?

A - Soilik, eskubide edo interes legitimo indibidualen titular gisa prozedura hori sustatu dutenak.

B - Prozedura hasi ez izan arren, hartuko den erabakiak eragin ditzakeen eskubideak dituen pertsona oro.

C - Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidualak nahiz kolektiboak dituztenak, prozeduran aurkezten diren edo ez alde batera utzita.

D - Beti ere, interes ekonomikoak eta sozialak ordezkatzen dituzten elkarte eta antolakundeak.

14. Udalek:

A - Autonomia bermatuta dute Konstituzioaren bidez.

B - Ez dute bermatuta autonomia Konstituzioaren bidez, baizik eta autonomia estatutuen bidez.

C - Ez dute bermatuta autonomia Konstituzioaren bidez, baizik eta lege autonomikoen bidez.

D - Ez dute bermatuta autonomia Konstituzioaren bidez, baizik eta estatuko legeen bidez.

11. En la Constitución de 1978:

A - Los partidos políticos se mencionan como expresión del pluralismo político.

B - Los partidos políticos se mencionan como personas jurídico-públicas.

C - Los partidos políticos se mencionan como partes del Estado.

D - Los partidos políticos no se mencionan.

12. El euskera:

A - Es la única lengua oficial y propia de las Administraciones Públicas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

B - Es, junto con el castellano, lengua oficial de las Administraciones Públicas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

C - Es un requisito ineludible para el acceso y desempeño de los puestos de trabajo de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi

D - Es la lengua propia en la que las Administraciones Públicas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi deberán dirigirse a los ciudadanos en primer lugar.

13. Se consideran interesados en el procedimiento según lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas:

A - Solo quienes lo promuevan como titulares de derechos o intereses legítimos individuales.

B - Los que, sin haber iniciado el procedimiento, tengan derechos que puedan resultar afectados por la decisión que en el mismo se adopte.

C - Aquellos cuyos intereses legítimos, individuales o colectivos, puedan resultar afectados por la resolución con independencia de que se personen o no en el procedimiento.

D - En todo caso las asociaciones y organizaciones representativas de intereses económicos y sociales.

14. Los municipios:

A - Tienen constitucionalmente garantizada su autonomía.

B - No tienen constitucionalmente garantizada su autonomía, sino a través de los Estatutos de Autonomía.

C - No tienen constitucionalmente garantizada su autonomía, sino a través de las leyes autonómicas.

D - No tienen constitucionalmente garantizada su autonomía, sino a través de las leyes estatales.

15. **Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorrak, abenduaren 17koak, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, zeintzuk dira zerga sistemaren printzipioak?**

A - Justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitatea, zerga zamaren banaketa zuzena eta konfiskatorietate eza.

B - Justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitatea, zerga zamaren banaketa zuzena eta konfiskatorietate proportzionala.

C - Justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitatea, analogia eta konfiskatorietatea.

D - Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorrak, abenduaren 17koak, ez ditu zerga sistemaren printzipioak jasotzen eta Konstituziora igortzen du.

16. **Administrazio publikoetako agintarien eta langileen ondare-erantzukizuna eskatzen denean:**

A - Eskaera zuzendu beharko zaie kaltea eragin duten agintariei eta langileei; aldiz, partikularrek bidaltzen badiote eskaera agintari eta langile horiek diharduten Administrazio Publikoari, ez da onartuko.

B - Erantzukizun hori eskatzeko nahitaezkoa da erantzukizun penala egotea.

C - Ez da aurreikusten administrazio publikoetako agintarien eta langileen aurkako atzerabide ekintzarik.

D - Erantzukizuna dagoela adierazten duen ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari.

17. **Zer behar da Eusko Legebiltzarrak Lehendakari izendatzeko?**

A - Euskal herritartasuna izatea nahikoa da, ez da besterik behar.

B - Hautagai zerrenda bateko zerrendaburu izatea.

C - Hautagai zerrenda bozkatueneko zerrendaburu izatea.

D - Eusko Legebiltzarreko kide hautetsia izatea.

18. **Nork ebatziko ditu Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta lurralde historiko bakoitzekoen arteko eskumen gatazkak?**

A - Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioak.

B - Jurisdikzio arruntak.

C - Bitartekaritza Batzordeak.

D - Auzitegi Konstituzionalak.

15. **¿Cuáles son los principios del sistema tributario conforme al art. 3 de la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria?**

A - Los principios de justicia, generalidad, igualdad, progresividad, equitativa distribución de la carga tributaria y no confiscatoriedad

B - Los principios de justicia, generalidad, igualdad, progresividad, equitativa distribución de la carga tributaria y confiscatoriedad proporcional.

C - Los principios de justicia, generalidad, igualdad, progresividad, analogía y confiscatoriedad.

D - La Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria no recoge los principios tributarios y remite a la Constitución.

16. **En los casos de exigencia de la responsabilidad patrimonial de las autoridades y personal al servicio de las Administraciones Públicas:**

A - La solicitud deberá formularse directamente ante las autoridades y personal causantes del daño, procediendo la inadmisión en los supuestos en que los particulares se dirijan contra la Administración Pública de quienes dependan.

B - Es necesario, para su nacimiento, la existencia de responsabilidad penal.

C - No se prevé la acción de regreso contra las autoridades y personal a su servicio.

D - La resolución declaratoria de responsabilidad pondrá fin a la vía administrativa.

17. **Para ser elegido Lehendakari por el Parlamento Vaco:**

A - No hace falta reunir ningún otro requisito que tener la ciudadanía vasca.

B - Tiene que ser cabeza de lista de una candidatura.

C - Tiene que ser cabeza de lista de la candidatura más votada.

D - Tiene que ser miembro electo del Parlamento Vasco.

18. **Los conflictos competenciales entre las Instituciones Comunes del País Vasco y las de cada uno de sus Territorios Históricos se resuelven:**

A - Por la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

B - Por la Jurisdicción Ordinaria.

C - Por la Comisión Arbitral.

D - Por el Tribunal Constitucional.

19. Zein da zuzentarauen xedea?

A - Estatu bakoitzak etorkizunean onartuko duen Zuzenbideak errespetatzea zuzentarauetan xedatutakoa.

B - Estatu bakoitzeko Zuzenbidea zuzentarauetan xedatutakora doitzea, horien aurrekoa nahiz ondorengoa izan.

C - Estatu bakoitzeko Zuzenbidea indargabetzea, zuzentarauetan xedatutakoaren aurkakoa denean, eragin zuzena baitute orokorrean.

D - Estatu bakoitzean indarrean dagoen Zuzenbidea atzera eraginez doitzea zuzentarauetan xedatutakora, hauek indarrean sartzen direnean.

20. 1978ko Konstituzioaren arabera, nori dagokio administrazio jarduna kontrolatzea?

A - Auzitegiei.

B - Administrazioari berari bakarrik.

C - Botere Exekutiboari bakarrik.

D - Botere Exekutiboari eta Herriaren Defendatzaileari bakarrik.

21. 1978ko Konstituzioaren arabera:

A - Gaztelania da egon litekeen hizkuntza ofizial bakarra.

B - Gaztelaniaz gain, egon daitezke beste hizkuntza ofizial batzuk, autonomia estatutuek horrela ezarriz gero.

C - Autonomia estatutuek gaztelaniaren ofizialtasunaren desplazamendua ezarriz gero, egon daitezke beste hizkuntza ofizial batzuk.

D - Autonomia erkidegoetako legeek ezarri bezainbat hizkuntza ofizial egon daitezke.

22. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren arabera, zeintzuk EZ dira egintza juridiko lotesleak?

A - Gomendioak eta irizpenak.

B - Zuzentarauak.

C - Erabakiak, hartzaileak izendatzen ez dituztenean.

D - Gomendioak, hartzaileak izendatzen ez dituztenean bakarrik.

19. Las Directivas:

A - Tienen por objeto que el Derecho nacional que se dicte en el futuro respete lo establecido en ellas.

B - Tienen por objeto ajustar el Derecho Nacional a lo dispuesto por ellas sea anterior o posterior a las mismas.

C - Tienen por objeto derogar directamente el Derecho nacional que se oponga a lo dispuesto en ellas, ya que tienen con carácter general efecto directo.

D - Tienen como fin ajustar retroactivamente el Derecho nacional vigente en el momento de su entrada en vigor a lo establecido por ellas.

20. Según la Constitución de 1978, controlar la actuación administrativa:

A - Corresponde a los tribunales.

B - Corresponde solo a la propia Administración.

C - Corresponde solo al Poder Ejecutivo.

D - Corresponde solo al Poder Ejecutivo y al Defensor del Pueblo.

21. Según la Constitución de 1978:

A - La única lengua oficial que puede existir es el castellano.

B - Además del castellano, pueden existir otras lenguas oficiales, si los Estatutos de Autonomía así lo establecen.

C - Si los Estatutos de Autonomía establecen el desplazamiento de la oficialidad del castellano, pueden existir otras lenguas oficiales.

D - Pueden existir tantas lenguas oficiales como establezcan las leyes de las Comunidades Autónomas.

22. De acuerdo con el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, no son actos jurídicos vinculantes:

A - Las recomendaciones y los dictámenes.

B - Las Directivas.

C - Las decisiones cuando no designen destinatarios.

D - Las recomendaciones sólo cuando no designen destinatarios.

23. Nola deitzen zaio emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzeari, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatuz?

A - Genero ikuspegiaren integrazioa.
B - Ekintza positiboa.
C - Aukera berdintasuna.
D - Tratu berdintasuna.

24. Zergatik izango dute partikularrek administrazio publikoen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea?

A - Euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, kontuan hartu gabe doloa, errua, edo ezinbesteko nahiz ezusteko kasua izan den.
B - Denboran eta forman aurkeztutako eskaera bat ezesteko ebazpen ororengatik.
C - Euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrak legearen arabera eginbehar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean.
D - Administrazio bidean edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioan deuseztatutako ebazpen ororengatik.

25. 1978ko Konstituzioaren arabera, Diputatuen Kongresuak eta Senatuak:

A - Eskumen berak dituzte.
B - Ez dituzte eskumen berak. Adibidez, Gobernuko presidentea Senatuak bakarrik hautatzen du.
C - Ez dituzte eskumen berak. Adibidez, Gobernuko presidentea Kongresuak bakarrik hautatzen du.
D - Ez dituzte eskumen berak. Adibidez, aurrekontuak Kongresuak bakarrik onartzen ditu.

26. 1978ko Konstituzioaren arabera, agintari administratiboei dagokienez:

A - Bizilekuaren bortxaezintasuna erabatekoa da.
B - Bizileku batean sartu ahal izateko, jabearen baimena beharko da beti.
C - Bizileku batean sartu ahal izateko, jabearen baimena beharko da beti, salbu eta kanpoan badago.
D - Bizileku batean sartu ahal izateko, jabearen baimena edo epailearen ebazpena beharko da beti.

23. La consideración sistemática de las diferentes situaciones, condiciones, aspiraciones y necesidades de mujeres y hombres, incorporando objetivos y actuaciones específicas dirigidas a eliminar las desigualdades y promover la igualdad en todas las políticas y acciones, a todos los niveles y en todas sus fases de planificación, ejecución y evaluación se denomina:

A - Integración de la perspectiva de género.
B - Acción positiva.
C - Igualdad de oportunidades.
D - Igualdad de trato.

24. Los particulares tienen derecho a ser indemnizados por las Administraciones Públicas:

A - Ante toda lesión que sufran en cualquiera de sus bienes y derechos, independientemente de que concurra dolo, culpa, fuerza mayor o caso fortuito.
B - Ante toda resolución desestimatoria de una solicitud presentada en tiempo y forma.
C - Ante toda lesión en sus bienes y derechos, consecuencia del funcionamiento normal o anormal de los servicios públicos, salvo en los casos de fuerza mayor o de daños que el particular tenga el deber jurídico de soportar de acuerdo con la Ley.
D - Ante toda resolución anulada por vía administrativa o por el orden jurisdiccional contencioso administrativo.

25. Según la Constitución de 1978, el Congreso de los Diputados y el Senado:

A - Tienen las mismas competencias.
B - No tienen las mismas competencias. Por ejemplo, al Presidente del Gobierno lo elige el Senado solamente.
C - No tienen las mismas competencias. Por ejemplo, al Presidente del Gobierno lo elige el Congreso solamente.
D - No tienen las mismas competencias. Por ejemplo, los Presupuestos los aprueba el Congreso solamente.

26. Según la Constitución de 1978, para las autoridades administrativas:

A - La inviolabilidad del domicilio es absoluta.
B - La entrada en un domicilio sólo se puede hacer con el consentimiento de su titular.
C - La entrada en un domicilio sólo se puede hacer con el consentimiento de su titular, salvo caso de ausencia.
D - La entrada en un domicilio sólo se puede hacer con el consentimiento de su titular o por resolución judicial.

27. **Zer dio hondar klausulan Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzko legeak ("Lurralde Historikoen Legea")?**

A - Eusko Jaurlaritzari legez esleitu ez zaizkion eskumenak foru aldundiei dagozkie.

B - Erkidego osorako erakundeei legez esleitu ez zaizkien eskumenak lurralde historikoei dagozkie.

C - Lurralde historikoetako foru erakundeei legez esleitu ez zaizkien eskumenak Erkidego osorako erakundeei dagozkie.

D - Lege horrek ez du hondar klausularik.

28. **Nortzuk dute informazio publikoa eskuratzeko eskubidea?**

A - Soilik informazio emateko betebeharra duen subjektuaren jarduera eremuan bizilekua duten pertsonek.

B - Soilik pertsona fisikoek.

C - Soilik Europar Batasuneko estatu kideetakoren bateko nazionalitatea duten pertsonek.

D - Pertsona orok.

29. **2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, noiz ulertuko da emakumeen eta gizonen ordezkaritza eta partaidetza orekatua dagoela?**

A - Emakumeen eta gizonen presentzia bermatzen denean, eta dena delako multzoan, sexu bakoitzeko pertsonak ez direnean pertsona kopuru osoaren ehuneko hirurogei baino gehiago edo ehuneko berrogei baino gutxiago.

B - Emakumeen eta gizonen presentzia bermatzen denean, eta dena delako multzoan, emakumeen ordezkaritza ez denean ehuneko hogeita hamar baino gutxiago.

C - Emakumeen eta gizonen presentzia bermatzen denean, eta dena delako multzoan, sexu bakoitzaren ordezkaritza ehuneko berrogeita hamarrekoa denean.

D - Emakumeen eta gizonen presentzia bermatzen denean, eta dena delako multzoan, gizonen ordezkaritza ez denean ehuneko hirurogeita hamabost baino gehiago.

27. **Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos (más conocida como "Ley de Territorios Históricos") establece como cláusula residual o de cierre que:**

A - Las competencias no atribuidas legalmente al Gobierno Vasco corresponden a las Diputaciones Forales.

B - Las competencias no atribuidas legalmente a las Instituciones Comunes pertenecen a los Territorios Históricos.

C - Las competencias no atribuidas legalmente a los Órganos Forales de los Territorios Históricos corresponden a las Instituciones Comunes.

D - No establece cláusula residual alguna.

28. **¿Quiénes tienen derecho de acceso a la información pública?**

A - Solo las personas que tengan residencia en el ámbito de actuación del sujeto obligado.

B - Solo las personas físicas.

C - Solo las personas con nacionalidad en uno de los Estados Miembros de la Unión Europea.

D - Todas las personas.

29. **¿Qué se entiende por representación o composición equilibrada de mujeres y hombres en el marco de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres?**

A - Aquella situación que garantice la presencia de mujeres y hombres de forma que, en el conjunto a que se refiera, las personas de cada sexo ni superen el sesenta por ciento ni sean menos del cuarenta por ciento.

B - Aquella situación que garantice la presencia de mujeres y hombres de forma que, en el conjunto a que se refiera, las mujeres no tengan una representación menor del treinta por ciento.

C - Aquella situación que garantice la presencia de mujeres y hombres de forma que, en el conjunto al que se refiera, las personas de cada sexo tengan una representación del cincuenta por ciento.

D - Aquella situación que garantice la presencia de mujeres y hombres de forma que, en el conjunto a que se refiera, los hombres no tengan una representación mayor del setenta y cinco por ciento.

30. **Administrazio publikoek izaera pribatuko harremanetan dihardutenean, dela zuzenean dela zuzenbide pribatuko entitate baten bitartez, nola eskatuko da haien erantzukizuna?**

A - Zuzenbide pribatuko entitatearen estatutuetan edo eraketa tituluan ezarritako arauen arabera.

B - 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, aurreikusitako arauen arabera.

C - Zuzenbide publikoko edo zuzenbide pribatuko arauen arabera, erreklamatzailearen aukeran.

D - Zuzenbide pribatuko arauen arabera.

31. **Diputatu nagusiak:**

A - Batzar Nagusiak aurretiaz desegiteko eta hauteskundeak deitzeko eskumena du, zentsura mozioa planteatuta ez dagoen bitartean.

B - Ez du Batzar Nagusiak aurretiaz desegiteko eskumenik.

C - Batzar Nagusiak aurretiaz desegiteko eta hauteskundeak deitzeko eskumena du, konfiantzako galdekizunak aurrera eginez gero.

D - Batzar Nagusiak aurretiaz desegiteko eta hauteskundeak deitzeko eskumena du, ordezkaritzako agintaldiaren hiru laurden igaro ez badira.

32. **Nola gauzatzen da hizkuntza normalkuntzaren prozesua euskal administrazio publikoetan?**

A - Euskararen erabilera normalizatzeko planen eta hizkuntza eskakizunen bitartez.

B - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak homologatutako ikastaroen bitartez.

C - Euskaltzaindiak xedatutakoaren bitartez, Euskal Autonomia Estatutuaren 6.4 artikuluaren arabera.

D - Euskal administrazioek araututakoaren bitartez, betiere Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren txosten nahitaezkoa eta lotesiea jaso ondoren.

30. **Cuando las Administraciones Públicas actúen, directamente o a través de una entidad de derecho privado, en relaciones de esta naturaleza, su responsabilidad se exigirá:**

A - De conformidad con las normas que se establezcan en los estatutos o en el título de constitución de la entidad de derecho privado.

B - De conformidad con las normas previstas en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

C - De conformidad con las normas de derecho público o de derecho privado, a elección del reclamante.

D - De conformidad con las normas de derecho privado.

31. **El diputado o diputada general:**

A - Tiene la competencia de disolver anticipadamente las Juntas Generales y de convocar elecciones, mientras no esté planteada una moción de censura.

B - No tiene la competencia de disolver anticipadamente las Juntas Generales.

C - Tiene la competencia de disolver anticipadamente las Juntas Generales y de convocar elecciones en el caso de prosperar una cuestión de confianza.

D - Tiene la competencia de disolver anticipadamente las Juntas Generales y de convocar elecciones si no han transcurrido las tres cuartas partes del mandato representativo.

32. **¿Cómo se lleva a cabo el proceso de normalización lingüística en las Administraciones Públicas Vascas?**

A - A través de los planes de normalización del uso del euskera y de los perfiles lingüísticos.

B - A través de cursos homologados por el Instituto Vasco de Administraciones Públicas.

C - A través de lo que disponga Euskaltzaindia, de conformidad con el art. 6.4 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

D - A través de lo que regulen las distintas administraciones vascas previo informe preceptivo y vinculante de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

33. **Ez badago jakiterik prozedura bateko interesdunak nor diren, edo jakinarazpena non egin behar den, edo jakinarazpena egiten saiatu baina huts egin bada, nola egingo da jakinarazpena, nahitaez?**

A - Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz.

B - Autonomia erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialean iragarki bat argitaratuz.

C - Interesdunak azken egoitza ezaguna izandako udaletxeko ediktu taulan iragarki bat argitaratuz.

D - Prozedura izapidetu duen administrazioaren egoitza elektronikoan iragarki bat argitaratuz.

34. **Administrazio publikoetan, zer dira izendapen bidez eta iraupen ez iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten langileak?**

A - Karrerako funtzionarioak.

B - Zuzendaritzako langileak eta langile profesionalak.

C - Lan-kontratudun langileak.

D - Behin-behineko langileak.

35. **Lege arrunta izango da:**

A - Elkartzeko eskubidea arautzen duen legea.

B - Estatu Kontseiluaren osaera eta ahalmena arautzen dituen legea.

C - Jaraunspen eskubidea arautzen duen legea.

D - Autonomia estatutuak onesten dituzten legeak.

36. **Noiz geldituko da bertan behera Eusko Jaurlaritza?**

A - Eusko Legebiltzarra desegin ondoren.

B - Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ondoren.

C - Zentsura mozio bat aurkeztu ondoren.

D - Konstituzioaren 155. artikulua ezarri ondoren.

37. **Non agertzen dira lurralde historikoen eskumenak?**

A - Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian daude guztiak.

B - Autonomia Estatutuan daude guztiak.

C - Lurralde historiko bakoitzaren oinarrizko foru arauetan daude guztiak.

D - Autonomia Estatutuan ("Lurralde Historikoen Lege" gisa ezaguna dena), eta beste batzuk Eusko Legebiltzarreko legeetan egon daitezke.

33. **Cuando los interesados en un procedimiento sean desconocidos, se ignore el lugar de la notificación o bien, intentada ésta, no se hubiese podido practicar la notificación se hará, con carácter obligatorio, por medio de:**

A - Un anuncio publicado en el <<Boletín Oficial del Estado>>.

B - Un anuncio en el Boletín Oficial de la Comunidad Autónoma o de la Provincia.

C - Un anuncio en el tablón de edictos del Ayuntamiento del último domicilio del interesado.

D - Un anuncio en la Sede Electrónica de la Administración que ha tramitado el procedimiento.

34. **En las Administraciones Públicas el personal que en virtud de nombramiento y con carácter no permanente, sólo realiza funciones expresamente calificadas como de confianza o asesoramiento especial se califica como:**

A - Funcionario de carrera.

B - Personal directivo y profesional.

C - Personal laboral.

D - Personal eventual.

35. **Debe ser Ley ordinaria:**

A - La ley que regule el derecho de asociación.

B - La ley que regule la composición y competencia del Consejo de Estado.

C - La Ley que regule el derecho a la herencia.

D - Las leyes que aprueben los Estatutos de Autonomía.

36. **El Gobierno Vasco cesa tras:**

A - La disolución del Parlamento Vasco.

B - La celebración de elecciones al Parlamento Vasco.

C - La presentación de una moción de censura.

D - La aplicación del art. 155 de la Constitución Española.

37. **Las competencias de los Territorios Históricos:**

A - Están todas en la disposición adicional primera de la Constitución.

B - Están todas en el Estatuto de Autonomía.

C - Están todas en las Normas Forales básicas de cada uno de ellos.

D - Están en el Estatuto de Autonomía (más conocida como "Ley de Territorios Históricos") y puede haber otras en leyes del Parlamento Vasco.

38. Botereen hiruko banaketa klasikoan, zer dira foru aldundiak?

A - Lurralde Historikoko botere legegilea.

B - Lurralde Historikoko botere betearazlea.

C - Lurralde Historikoko botere legegilea eta betearazlea.

D - Autonomia Erkidegoko botere betearazlea.

39. 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, aurreikusten du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Horren inguruan zein baieztapen dago OKER?

A - Eskatzaileak ez dauka arrazoitu beharrik informazioa eskuratzeko eskaera.

B - Zabalkundea emateko aldez aurreko lanketa eskatzen duten informazioei buruzko eskaerak ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitua emanez.

C - Ebazteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera onetsi egin dela ulertuko da.

D - Eskatutako informazioak hirugarren batzuen eskubide edo interesei eragin badiezaieke, eta behar bezala identifikatuta badaude, hamabost eguneko epea emango zaie nahi dituzten alegazioak egiteko.

40. Espainiako Konstituzioaren arabera, udalek beren buruak antolatzeko ahala dute.

A - Espainiako Konstituzioak eskumen hori ematen baitie zuzenean.

B - Autonomia Erkidegoko legeak eskumen hori ematen baitie.

C - Oinarri Legeak eskumen hori ematen baitie.

D - Beren buruak antolatzeko ahala dute, Autonomia Erkidegoak ahal hori eskuordetzan ematen badie.

41. Administrazio ebazpen partikularrek ezin dute urratu xedapen orokor batean ezarritakoa:

A - Inoiz ez.

B - Salbu eta xedapen orokorra eman zuenaren maila bereko organo batenak badira.

C - Salbu eta xedapen orokorra eman zuenaren hierarkian goragoko organo batenak badira.

D - Salbu eta xedapen orokorrak lege indarra badu.

38. En la clásica tripartición de poderes, las Diputaciones Forales son:

A - El legislativo del Territorio Histórico.

B - El ejecutivo del Territorio Histórico.

C - El legislativo y el ejecutivo del Territorio Histórico.

D - El ejecutivo de la Comunidad Autónoma.

39. ¿Cuál de las siguientes afirmaciones sobre el ejercicio de derecho acceso a la información pública previsto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno es INCORRECTA?

A - El solicitante no está obligado a motivar su solicitud de acceso a la información.

B - Se inadmitirán a trámite, mediante resolución motivada, las solicitudes relativas a información para cuya divulgación sea necesaria una acción previa de reelaboración.

C - Transcurrido el plazo máximo para resolver sin que se haya dictado y notificado resolución expresa se entenderá que la solicitud ha sido estimada.

D - Si la información solicitada pudiera afectar a derechos o intereses de terceros, debidamente identificados, se les concederá un plazo de quince días para que puedan realizar las alegaciones que estimen oportunas.

40. De acuerdo con la Constitución Española, los Municipios tienen potestad de auto-organización.

A - Atribuida directamente por la Constitución Española.

B - Atribuida por Ley autonómica.

C - Atribuida por Ley de Bases.

D - Tienen potestad de auto-organización si dicha potestad se delega por la Comunidad Autónoma.

41. Las resoluciones administrativas de carácter particular no podrán vulnerar lo establecido en una disposición de carácter general:

A - En ningún caso.

B - Excepto en el caso de que aquéllas procedan de un órgano de igual jerarquía al que dictó la disposición general.

C - Excepto en el caso de que aquéllas procedan de un órgano de superior jerarquía al que dictó la disposición general.

D - Salvo que la disposición general tenga rango de Ley.

42. Zein prozeduratan agertzen da kaltegarritasun deklarazioa?

A - Izaera orokorreko xedapenak ofizioz berrikusteko prozeduran.
B - Egintza erabat deusezak ofizioz berrikusteko prozeduran.
C - Egintza deuseztagarriak berrikusteko prozeduran.
D - Baliaezintasunik eragiten ez duten irregulartasunak berrikusteko prozeduran.

43. Nola izendatzen ditu Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorrak, abenduaren 17koak, kontraprestaziorik gabe exijitzen diren tributuak, eta beren zerga egitatea zergadunaren ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten negozio, egintza edo gertakariek eratzen dutenak?

A - Tasak.
B - Kontribuzio bereziak.
C - Zergak.
D - Prezio publikoak.

44. Lehendakariak:

A - Ez dauka Eusko Jaurlaritzarenetik desberdindutako erregelamendu ahalmenik.
B - Eusko Jaurlaritzarenetik desberdindutako erregelamendu ahalmena du.
C - Erregelamendu ahalmena du, Eusko Jaurlaritzak berretsiz gero.
D - Erregelamendu ahalmena du, Eusko Legebiltzarrak baliozkotuz gero.

45. 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, garrantzi juridikoa duen informazioa argitaratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak duen betebeharra zeri EZ zaio aplikatuko?

A - Araugintzari.
B - Indarrean dagoen legedi sektorialarekin bat, tramitazioan zehar jendaurreko informazio aldi bat igaro behar duten dokumentuei.
C - Kontsulta organoek emandako nahitaezko txostenei.
D - Zerga administrazioari eragiten dioten dokumentuei.

46. Zer arau ematen dituzte lurralde historikoetako batzar nagusiek?

A - Legeak.
B - Foru arauak.
C - Foru dekretuak.
D - Foru dekretu arauak.

42. La declaración de lesividad forma parte del procedimiento de:

A - Revisión de oficio de las disposiciones de carácter general.
B - Revisión de oficio de actos nulos de pleno Derecho.
C - Revisión de actos anulables.
D - Revisión de irregularidades no invalidantes.

43. Los tributos exigidos sin contraprestación cuyo hecho imponible está constituido por negocios, actos o hechos que ponen de manifiesto la capacidad económica del contribuyente se denominan en la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria:

A - Tasas.
B - Contribuciones especiales.
C - Impuestos.
D - Precios públicos.

44. El Lehendakari:

A - No tiene potestad reglamentaria diferenciada de la del Gobierno Vasco.
B - Tiene potestad reglamentaria diferenciada de la del Gobierno Vasco.
C - Tiene potestad reglamentaria si la refrenda el Gobierno Vasco.
D - Tiene potestad reglamentaria si la convalida el Parlamento Vasco.

45. El deber de la Diputación Foral de Gipuzkoa de publicar la información de relevancia jurídica conforme a la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral NO alcanza a:

A - A la elaboración de normas.
B - A los documentos que, conforme a la legislación sectorial vigente, deban ser sometidos a un periodo de información pública durante su tramitación.
C - A los informes emitidos por los órganos consultivos con carácter preceptivo.
D - A los documentos que afecten a la Administración Tributaria.

46. Las Juntas Generales de cada Territorio Histórico dictan:

A - Leyes.
B - Normas Forales.
C - Decretos Forales.
D - Decretos Forales-Norma.

47. Administrazio-isiltasunez ezesten den kasuan:

A - Administrazioa ez dago behartuta ebazpena ematera.

B - Administrazioak ebazpena eman beharko du ondoren, baina isiltasunaren zentzu berean, hau da, ezezko ebazpena.

C - Administrazioa behartuta dago ebazpena ematera, isiltasunaren zentzuarekin inolako loturarik izan gabe.

D - Administrazioak ezin du ebazpenik eman.

48. Zeri EZ zaio aplikatuko 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa?

A - Guztiz automatizatua den datu pertsonalen tratamenduari.

B - Fitxategi batean dauden edo fitxategi batean sartzekoak diren datu pertsonalen tratamendu ez automatizatuari.

C - Partzialki automatizatua den datu pertsonalen tratamenduari.

D - Gai sailkatuak babesteko araudiari lotutako datu pertsonalen tratamenduei.

49. 1978ko Konstituzioaren arabera:

A - Badira bereziki babestuta dauden oinarrizko eskubide batzuk eta askatasun publiko batzuk.

B - Eskubide eta askatasun guztiak babestuta daude eta horretarako babes-errekurtsoa baliatu daiteke.

C - Oinarrizko eskubideen babesa benetako babes judizialetik eratorritakoa da.

D - Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen babes berezi bakarra Herriaren Defendatzaileak eskaintzen duena da.

50. 1978ko Konstituzioaren arabera, nork baliozkotzen ditu lege-dekretuak?

A - Gorte Nagusiek.

B - Senatuak.

C - Konstituzio Auzitegiak.

D - Diputatuen Kongresuak.

51. Nola eraldatzen dira autonomia estatutuak?

A - Gehiengo osoz onetsitako lege autonomikoaren bitartez.

B - Estatutuetan xedatutakoaren arabera eraldatzen dira, eta Senatuak gehiengo osoz onetsi behar du eraldaketa.

C - Estatutuetan xedatutakoaren arabera eraldatzen dira, eta Gorte Nagusiek lege organikoaren bidez onetsi behar dute eraldaketa

D - Estatutuetan xedatutakoaren arabera eraldatzen dira, eta Gorte Nagusiek lege organikoaren bidez onetsi behar dute eraldaketa eta erreferenduma egin behar da, kasu guztietan.

47. Cuando se producen los efectos del silencio negativo:

A - La Administración ya no está obligada a resolver.

B - La Administración estará obligada a resolver posteriormente pero en el mismo sentido del silencio, esto es, negativamente.

C - La Administración está obligada a resolver sin vinculación alguna al sentido del silencio.

D - La Administración ya no puede resolver.

48. Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales NO es de aplicación a:

A - A cualquier tratamiento totalmente automatizado de datos personales.

B - Al tratamiento no automatizado de datos personales contenidos o destinados a ser incluidos en un fichero.

C - A cualquier tratamiento parcialmente automatizado de datos personales.

D - A los tratamientos de datos personales sometidos a la normativa sobre protección de materias clasificadas.

49. Según la Constitución de 1978:

A - Hay unos derechos fundamentales y libertades públicas que están especialmente protegidos.

B - Todos los derechos y libertades están protegidos por el recurso de amparo.

C - La protección de los derechos fundamentales es únicamente la que se deriva de la tutela judicial efectiva.

D - La única protección especial de los derechos fundamentales y de las libertades públicas es la dispensada por el Defensor del Pueblo.

50. Según la Constitución de 1978, los Decretos-Leyes tienen que ser convalidados por:

A - Las Cortes Generales.

B - El Senado.

C - El Tribunal Constitucional.

D - El Congreso de los Diputados.

51. La reforma de los Estatutos de Autonomía:

A - Se hace por ley autonómica aprobada por mayoría absoluta.

B - Se hace según lo que dispongan los propios Estatutos y debe ser aprobada por el Senado por mayoría absoluta.

C - Se hace según lo que dispongan los propios Estatutos y debe ser aprobada por las Cortes Generales mediante ley orgánica.

D - Se hace según lo que dispongan los propios Estatutos y debe ser aprobada por las Cortes Generales mediante ley orgánica y sometida a referéndum en todos los casos.

52. 1978ko Konstituzioaren arabera, nola interpretatu behar dira oinarrizko eskubideei eta askatasun publikoei buruzko arauak?

A - Hitzez hitz interpretatu behar dira.

B - Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak kontuan hartuta interpretatu behar dira.

C - Proportzionaltasun printzipioaren arabera interpretatu behar dira beti.

D - Ez dira interpretatu behar.

